

# **BERAK GIDA GAITZALA**

**DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO  
PASTORAL EGITARAUA 2011-2016**

2011ko Iraila

Donostiako Gotzaindegia  
Zabaleta, 5  
20002 Donostia-San Sebastián

ISBN: 84-96903-69-2  
Legezko Gordailua: SS-1181/2011

Argazkia: Iesu Parrokia

Inprimatzaile: FASPRINT IGARA - Donostia

## AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| BERAK GIDA GAITZALA. GOTZAIN JAUNAREN PASTORAL IDAZKIA . . . . .  | 5  |
| 1. GURE PASTORAL EGITASMOAREN ESPARRUA . . . . .  | 7  |
| 2. KRISIALDI BATEN DIAGNOSIA . . . . .  | 10 |
| 3. JARRAIBIDEAK SENDABIDERANTZ . . . . .  | 13 |
| 4. GURE ERRONKARIK BEHINENA: ELIZA ELKARTASUN ETXE<br>ETA ESKOLA BILAKATZEA . . . . .   | 18 |
| 5. KONTZIENTE ETA ERAGINKOR GURE GIZARTEKO<br>ERRONKEN AURREAN . . . . .  | 21 |
| 6. "ETXEA JAUNAK ERAIKITZEN EZ BADU" . . . . .  | 23 |
| <br>  |    |
| 2011-2016. ELIZBARRUTIKO PASTORAL EGITARAU<br>HELBURU OROKORRAK.<br>2011-2012 IKASTURTERAKO HELBURU ETA BALIABIDEAK . . . . . | 25 |
| <br>  |    |
| 2011-2016. ELIZBARRUTIKO PASTORAL EGITARAU<br>HELBURU OROKORRAK . . . . .   | 28 |
| I. OTOITZA . . . . .  | 31 |
| 1. Liturgia eta sakramentuak . . . . .  | 31 |
| 2. Jainkoaren Hitza . . . . .   | 32 |
| 3. Kontenplaziozko otoitza . . . . .  | 32 |
| 4. Gogo-jardunak eta erretiroak . . . . .   | 32 |
| II. KARITATEA . . . . .   | 35 |
| A. Elkartasuna . . . . .  | 35 |
| 1. Pertsonak . . . . .  | 35 |
| 2. Pastoral-egiturak . . . . .  | 36 |
| 3. Katolikotasuna . . . . .   | 37 |

|  |    |
|--|----|
| B. Eskaintza . . . . .   | 38 |
| 1. Errukiarrak eta justiziarekin konprometituak . . . . .          | 38 |
| 2. Adiskidetuak eta bakegileak . . . . .                           | 39 |
| 3. Sorkariak, Kreazioarekin arduratsuak . . . . .                  | 40 |
| III. EBANJELIZAZIOA . . . . .                                      | 41 |
| A. Ebanjelizatzaileak . . . . .                                    | 41 |
| 1. Laikoak . . . . .   | 41 |
| 2. Pertsona sagaratuak . . . . .                                   | 42 |
| 3. Ministro ordenatuak . . . . .                                   | 43 |
| B. Ebanjelizazioa . . . . .  | 44 |
| 1. Familia . . . . .   | 44 |
| 2. Eskola . . . . .  | 45 |
| 3. Haurrak . . . . .   | 46 |
| 4. Gazteak . . . . .   | 47 |
| 5. Helduak . . . . .   | 48 |
| 6. Kultura . . . . .   | 49 |
| <br>   |    |
| 2011-2012 IKASTURTERAKO HELBURU ETA BALIABIDEAK: OTOITZA . . . . . | 51 |
| 1. LITURGIA ETA SAKRAMENTUAK . . . . .                             | 51 |
| 2. JAINKOAREN HITZA . . . . .                                      | 54 |
| 3. KONTENPLAZIOZKO OTOITZA . . . . .                               | 55 |
| 4. GOGO-JARDUNAK ETA BAKARRALDI ESPIRITUALAK . . . . .             | 56 |

**BERAK GIDA GAITZALA**

**GOTZAIN JAUNAREN  
PASTORAL IDAZKIA**

2011-2016  
Pastoral Egitarauari Hitzaurrea





## **BERAK GIDA GAITZALA**

### **GOTZAIN JAUNAREN PASTORAL IDAZKIA 2011-2016 PASTORAL EGITARAUARI HITZAURREA**

#### **1. GURE PASTORAL EGITASMOAREN ESPARRUA**

Elizak Ebanjelizazio Berrirako egiten duen presazko deialditik sortzen da edozein “Pastoral Egitasmo”, eta Kristok bere ikasleak Ebanjelioa hots egitera herri guztietara bidali zituen hartan du jatorria. *“Eliza, izan, ebanjelizatzeke da. Hori da Elizaren ezaugarriarik sakonena”*<sup>1</sup>.

Baina, ebanjelioa hots egiteko deia ez dago ez testuingurutik kanpo, ezta gure ingurune eta egoeretatik deserrotua ere. Gure zeregin hori garai eta leku jakin batean gauzatzen dugu; hau da, Eliz bizitzaren grazia bereziko aldi batean murgildurik, eta gure aurrekoek *ureztatu* eta *ongarritu*tako eremu batean.

---

1 *“Eliza Ebanjelioaren Zerbitzura”* dokumentutik hartutako aipu honen jatorria Paulo VI.a Aita Santuaren adierazpenean dago: *“Elizak ebanjelizatzeke existitzen du”*.

Gure Donostiako Elizbarrutia Bosturteko (2011-2016) Pastoral Egitasmo berriaren bidean abiatzera doa; eta abiapuntu honetan, Eliza Unibertsala bi urteurrenen prestaketan hastera doa, hain zuzen ere, gure Pastoral Egitasmoarentzat esparru egoki izan daitezkeenak:

Batetik, Eliza Katolikoak Vatikanoko II.a Kontzilioa hasi zeneko (1962) 50. urteurrena ospatzen du. Eta hori abagune paregabea da, Eliza Katolikoren azken Kontzilio Unibertsalean aldarrikatu ziren orientazioei buruzko gure eliz bizitzako oinarriak berresteko. Kontzilioko batzar nagusi hartan, lehenik Joan XXIII.a, eta ondoren Paulo VI.a buru zela finkatu ziren batasun-oinarriak oso zabalak eta sendoak dira: abiapuntutzat dugun Eliz eredia ("*Lumen Gentium*"); Elizak munduarekin izan behar duen harremanari buruzko gure ikuspegia ("*Gaudium et Spes*"); Jainkoarengana hurbiltzen gaituen Liturgia Santuaz dugun ikuskera ("*Sacrosanctum Concilium*"); Errebelazio-iturriei buruzko gure ulerpena ("*Dei Verbum*"); defendatzen dugun apaiz-eredua ("*Presbyterorum Ordinis*"); Elizaren misio-ekin-tza ("*Ad Gentes*") eta abarrek Vatikanoko II.a Kontzilioan dituzte erroak, Eliza unibertsalaren biziarentzat eta bereziki gure tokiko Elizarentzat benetako sustrai direnak.

Bestetik, eta aldi berean, 2012. urtean ospatzen dugu Kontzilio osteko eliz bizitzaren irakaspeneko obrarik luzeena aldarrikatu zeneko 20. urteurrena: Eliza Katolikoaren Dotrina Nagusiarena. Trentoko Kontzilioak San Pio V.aren Eliza Katolikoaren Dotrina Nagusiaren aldarrikapen (*Catecismo Tridentino*) emaitza ekarri zuen bezala, eta modu berean, Vatikanoko I.a Kontzilioak San Pio X.aren Dotrina Nagusia, Vatikanoko II.a Kontzilioak Eliza Katolikoaren Doktrina Nagusia argitaratu zuen. Sekulako obra hau, gure fedearen laburpen bat da; hau da, Vatikanoko II.a Kontzilioaren ekarpen guztiak abiapuntutzat hartuta<sup>2</sup>, gure Elizaren fedea katekesi mailan formulatzeko izugarritzko ahaleginez egin den obra.

---

2 Eliza Katolikoaren Dotrinak bere baitan jaso ditu Vatikanoko II.a Kontzilioaren testuetako milaren bat aipamen, Bibliako hiru milaren bat aipu, Eliz Gurasoen eta ondorengo santuen ezin konta ahalako zehar-esan, testu liturgikoetako ehunka erreferentzia, eta Vatikanoko II.aren aurreko eta ondorengo irakaspenezko argibide ugari.

Kontzilioa amaiturik hogei urte betetzen zirela-eta, 1985ean, Joan Paulo II.a Aita Santuak Sinodo berezi baterako deia egin zuen. Bertako ondorio nagusien artetik nabarmendu zen eskabidea, Sinodoko ia apaiz guztien aldetiko proposamena: Dotrina Nagusi bat idaztekoa. Dotrina horrek jaso beharko zuen fedeari eta moralari zegokion dotrina katoliko osoa, non dotrina txiki guztien erreferentzia izango zen. Mundu guztiko gotzainen parte-hartzearekin egingadako idatzizko lana 1992an argitaratu zen, ordura arte luzatu baitzen.

Horregatik, Eliza Katolikoaren Dotrina Nagusiari harrera pozgarria egitea da kontzilioko dokumentuak egoki ulertzeko bermerik ziurrena, biltzar hura adoretu zuen “espirituaren” eta ontzat eman ziren dokumentuetako “letraren” arteko irakurketa integratzailea eginez. Bereziki argitsua eta profetikoa izan da gaur egungo gure Benedikto XVI.a Aita Santuak egin duen bereizkuntza (Vatikano II.a Kontzilioan aditu gisa jardun zuen, eta Fedearen Irakasbiderako Kongregazioan, berriz, Presidente gisa, Dotrina Nagusia egiten); hain zuzen ere, Kontzilioa irakurtzeko eta interpretatzeko izan behar den hermeneutikari buruz. Erromako kuriaren aurrean, 2005eko abenduaren 22an, eman zuen diskurtso historikoan, Aita Santuak hitz egin zuen Vatikano II.a Kontzilioa “hausturazko” hermeneutika batez interpretatzeko zegoen arriskuaz, “erreformazko” hermeneutika zuzen batez –egiaz Kontzilio hau bultzatu zuen “espiritua” eta “letra” den erreforma gisa– interpretatu beharrean.

“*Eliza Ebanjelioaren Zerbitzura*” dokumentua erreferentzia-puntu sendo bat da Gipuzkoako gure gaurko Elizarentzat eta harekin uztartu nahi dugu oraingo Bosturteko Pastoral Egitasmoa. Izan ere, “*Eliza Ebanjelioaren Zerbitzura*” dokumentua da pastoral zereginean gure elizbarrutiko Elizak azken hamabi urteetan abian jarritako ibilbide nekaezinaren eragile eta ispilu: Espirituaren eraberritze eta Ebanjelioaren zerbitzura irekitako estiloa sustatuz; jorkabideetan gertutasunean eta harreran saiatuz; senide-elkartasunaren aldeko bakegintzan jardunez eta sufritzen dutenei lagunduz. Hitz batean, bera da inoiz gainditutzat eman ezingo dugun abiapuntua, eta etengabe heldu beharko dioguna, irakaspen ebanjelikoen oinarrietan elikatzen baita.

## 2. KRISIALDI BATEN DIAGNOSIA

Elizbarrutiko Pastoral Egitasmo bat prestatu aurretik, beharrezkoa da gogoeta egitea, zein testuingurutarako landu den eta erantzun nahi dien egoerak zein diren jakiteko. Sakonera jotzeko asmorik gabe, komenigarria iruditu zait, elizbarrutiko Artzain naitzen aldetik, sumatzen ditudan funtsezko hautemateak agertzea, horietatik sortuko baitira gerora azalduko diren intuizio pastoralak.

Gaur egun proba latz batean murgildurik dago fede katolikoa-  
ren ondarea, gure herri-eraketaren hasieratik bertatik iritsi zaiguna, gure historiak izan duen onena azkartu eta bere identitate, duintasun eta itxaropenaren iturburu izan den ondarea. Haren ekarpena ezinbestekoa izan da gure tradizioentzat eta kulturarentzat; elikagai izan du gure santu handien testigantza; munduko hainbat herriren zerbitzuan jardun duten misiolari ugariren irekitasun eta arta katolikoa kanporatu du; bete-betean txertatu da gure tradizioetan, eta abar. Alabaina, bistakoa da ondareari mailaz mailako gainbehera gertatu zaiola, gure kultura estandarizatu eta globalizatu den neurrian.

Mendebaldean Elizak, oro har, eta gure Elizbarrutikoak, bereziki, bizi duen aldia, benetan une larria da. Azken hamarkadetan, latz eragin dion fenomeno bat, sekularizazio-prozesu bat<sup>3</sup> pairatu

---

3    Sekularizazio hitzarekin zer ulertzen dugun argitzeko, Benedikto XVI.a Aita Santuak, 2008ko martxoaren 8an, Kulturaren Kontseilu Pontifikalari zuzendutako hitz batzuk ekarriko ditut gogora: *“Atsegin zait, Kulturaren Kontseilu Pontifikalaren Osoko Biltzarra dela-eta, zuekin biltzea, eta asko pozten nau egiten duzuen lanak eta, bereziki, gaurko saiorako aukeratu den gaiak: «Eliza eta sekularizazioaren erronka». Funtsezko arazo bat da hau gizateriaren eta Elizaren etorkizunerako. Sekularizazioa –sarritan honen esanahi positiboa baztertu eta sekularismo bilakatzen dena– proba latz bat izaten da fededunen eta artzainen kristau-bizitzan, eta zuek zuen lanetan probidentziatzko erronka gisa ulertu eta eraldatu duzue, gure garaikidea den gizakiaren galdera eta itxaropenei erantzun sinesgarriak proposatzeko. Sekularizazioak, kulturei Haraindikoaren inolako erreferentziarik ez duen munduaren eta gizateriaren planteamendu gisa agertzen zaienak, eguneroko bizitzako edozein alderdi inbaditzen du eta gure giza existentziatik eta kontzientziatik, guztiz nahiz zati batean, Jainkoak existitzen ez duen pentsaera garatzen du. Sekularizazio hori ez da fededunentzat kanpoan dagoen mehatxu bat soilik, baizik eta, aspalditik agertzen da Elizaren barruan. Kristau-fedeari sakoneko eta berezko izaera kentzen dio barrutik eta, ondorioz, baita fededunen*

du gure kulturak, gure herriaren erlijio-kontzientzia funtsean aldatzeraino. Eta garrantzitsua da aitortzea sekularizazio-prozesu hori ez dela guregandik at gertatzen soilik, baizik eta eragiten digula Elizaren barne-bizitzan ere

Sinplifikatzeko arriskuak arrisku, sekularizazioak gure gizartean izan dituen eragin negatiboen ondorioak laburbiltzen ausartuko naiz **“lau zaurietan”**, hona hemen: transzendentziarik gabeko materialismoa, arinkeriazko kultura, erlatibismoa eta laizismo anti-klerikala.

**2.1.- Transzendentziarik gabeko materialismoa.** *“Erljioa herriaren opioa da”* zioen harako tesi marxista hura gezurra dela frogaturik geratu da. Alderantzizkoa, bai, gertatu da, herri askok sentitu dute gizatasun gabeko diktaduretatik askatzeko deia –esaterako, Ekialdeko Europan, Hego Amerikan– beren duintasuna eta indarra aurkitu duten erlijio-identitatetik abiatu. Hala ere, gure kristau-sustraien galeran daramagun prozesu lasterra ikusita, esan daiteke: *“materialismoa gertatu da herriaren opioa”*. Hala da, eta argi geratu da mendebaldeko kulturaren izugarritzko eragina duela kontsumismoak, edukitzearen neurrigabeko lehiak eta dirua gurtzeak gure, eta ondorioz kristau-sinesteak (uste sendoak) goitik behera jauzi dira, egiazkoak baino itxurazkoak zirela erakutsiz.

---

eguneroko bizi-estiloa eta jokabidea ere. Munduan bizi dira eta sarritan irudiaren kulturak markatzen ditu –baldintzatzen ez baditu– Jainkoaren ukapen praktikokan kontraesaneko eredu eta joerak inposatuz: jada ez dago Jainkoaren beharrik, haren gan pentsatu beharrik eta harengana itzuli beharrik. Gainera, nagusi den pentsaera hedonista eta kontsumitzaileak eliz bizitzarako hain kaltegarri denak, azalkeiazko nora ezean eta egozentrismora bultzatzen ditu fededunak nahiz artzainak.

*Azken hamarkadetan, intelektual ugari hots egindako «Jainkoaren heriotzak» gizabakoaren gurtza antzuarri lekua utzi dio. Kultur testuinguru horretan bada arrisku bat, espirituaren atrofian eta bihotz-hustasunean erortzekoa, hain justu, zenbaitetan erlijio-ordezko eta espiritualitate hutsal bateko partaidetzaren ezaugarri bereizgarria duenean.*

*Halako nora ezean, gero eta presazkoago agertzen zaigu, bizitzari zentzua emateaz gain, zorion bila dabilen giza bihotzaren egonezina baretu dezaketean existentziaren gorengo balioez oroitzea: gizakiaren duintasuna eta askatasuna, gizaki guztien arteko berdintasuna, bizitzaren eta heriotzaren zentzua, eta lurreko existentzia amaitu ondoren zain dugunarena (...)*”

**2.2.- Arinkeriazko edo azalkeriazko kultura.** Sustatzen den aisia-motan nabarmentzen da arinkeria, eta suntsitzaile gertatzen da maiz. Nahikoa da frogatzea zein diren entzulerian arrakasta handiena duten telebistako produktuak, nahiz estetikako ereduak; baina bereziki, sexualitatearen bizipena gozamen hutserako baliabide gisa nagusitzen ikustea, maitasun-bokaziorako Jainkoak egin digun deia alde batera utzita. Pansexualismoa<sup>4</sup> da arinkeriazko kulturaren adierazpenik markatuena.

**2.3.- Erlatibismoa.** Benedikto XVI.a Aita Santuak bere aitasantutzaldiaren hasieratik izan du berezitasun bat: kultura garaikidearekin harreman kritikoa izateko aparteko gaitasuna eta, horrez gain, askatasun profetikoa. Berretsi egiten du Aita Santuak Jainkoa ahazteak eta ukatzeak humanismoaren aurkako ideologiaren hedapena ekarri duela, hau da, kristau-antropologiaren aurka daudenena. Nahiz eta egia den postulatu erlatibistak hasiera tolerantziaren eta pluralismoaren ikur gisa hedatu zirela, hala ere, nagusi izatera iritsi zirenean, beren “zapalgailu” partikularra, “pentsamendu bakarrarena” jarri zuten abian; hain zuzen ere, Aita Santuak “erlatibismoaren diktadura” gisa izendatu zuena.

Erlatibismoaren elikagaia da nihilismo kutsuko filosofia, eta edozein egia objektibo ukatzen du, izatearen azken arrazoia den Jainkoa ukatzearen edo ahaztearen ondorio praktikoren bidez. Egia objektibo batean sinesten deneko baieztapena bera susmopean jartzzen da, tolerantzia ezaren edo fundamentalismoaren hazi izan daitekeelakoan.

Ideologia erlatibistek alor hauei eragiten diete gehien: bizitzari, familiari, heziketari eta sexualitateari. Joan Paulo II.a oso argia izan zen bere diagnosian, II. Munduko Familien Topaketako gotzain eta biltzarkideen aurrean: *“Familiaren eta biziaren inguruan egiten da gaur giza duintasunaren funtsezko borroka”* (Rio de Janeiron, 1977ko urriaren 3an).

---

4 Pansexualismotzat hartzen dugu gizartea sexualitatea obsesiboki ulertzeko modu batetan taxutzea, sexualitatea genitaleara murriztuz: azken batean, sexualitatea maitasunetik bereizi, kontsumorako baliabide bilakatzea.

2.4.- **Laizismo antiklerikala.** Hau ez da kontu berria gure artean, sustrai sakonak baitu historian. Baina, egia da, azken urte hauetan, artifizialki eta garaiz kanpo, eta interesatuki xaxatu izan dela, batez ere, eraginik handiena dute komunikabideen aldetik. Aita Santuarekiko eta Elizaren hierarkiarekiko asmo gaiztoa inokulatu izan da etengabe, eta horretarako, sarritan manipulatzeko eta zabaltzeko dira Elizaren baitako barne-arazoak.

Horrekin batera, gogora dezagun, garrantzizkoa baita, Benedikto XVI.a Aita Santuak profetikoki nola azpimarratu duen hainbat egoeratan, oker gaudela Elizaren etsairik nagusienak gure baitatik kanpo ditugula pentsatzean. Ezta hurrik eman ere, Elizaren arerio nagusia geure baitan daukagu, eta ez da gure santutasun-eza baino. Hain zuzen ere, laizismo antiklerikalaren diagnosa gure kulturaren daukagu eta ez da defentsako ezkutu gisa erabili behar, barne garbikuntzan dugun zereginetik salbuesteko.

### 3. JARRAIBIDEAK SENDABIDERANTZ

Gure kulturaren sekularizazioak duen eraginari buruzko epai kritiko hau egiteak ez du haatik esan nahi gure gizarte eta gure aldiari hoztasunez edo mesfidantzaz begiratzen diogunik, muin-muinetik loturik baikaude beraiekin. Bene-benetan uste dugu gure Elizak garbikuntza-aldi eta grazia aldi bat bizi duela krisialdi honen erdian. Sekularizazioaren eragin sarkorrak ez du gelditu eta ez du gelditzerik lortuko gure artean Erreinuaren eraikuntzan aurrera doan Espiritu Santuaren ekintza bizigarria.

Irmoki sinesten dugu Parakletoa edo Espiritu Santua atergabe ari dela Kristoren Erospea aurrera daramaten, hau da, gorago aipatu eta gizateriari eta Jainkoaren bihotzari berari halako sufri-mendua eragiten dioten "lau zauri" horien sendakuntzan. Sinesten dugu Nazareteko Jesus, guregatik gizon egin zen Jainkoaren Semea, aldi eta garai guztietako gizon-emakumeen zorion-egarriaren erantzuna izan dela, gaur ere badela eta aurrera ere izango dela.

Dena den, nola ahantz dezakegu Jainkoaren erreinua guganaino iritsi dela egia bada, aldi berean, gure bihozberritze pertsonala eta lankidetzaz eskuzabala beharrezkoa duela, modu egonkor eta ugalkor batean finkatzekotan? Donostiako Elizbarrutian ibilian dabilen Eliza Katolikoak gogotsu aldarrikatzen du: *“Maranatha, zatoz Jesus Jauna!”* (Ap 22,20).

Gure Pastoral Egitasmoa garaien zantzuei adi egotean datza, hau da, Espirituak bere Elizan eta gizartean duen presentziari so, eta ezin daiteke bestela izan; halako moldez, non gure indar guztiak haren obra santutzailearen zerbitzura jarriko ditugun. Apaltasunez eta haren argira gehiago ireki behar dugulako kontzientzian, gure artean Espiritu Santuaren eragin ezkutukoa –eta ez hain ezkutukoa– ezagutzera iritsiko bagara, ekin diezaiogun sekularizazioak sortutako lau zaurietan nola jarduten duen azpimarratzeari:

**3.1.- Materialismoaren aurrean, karitatea.** Esperientziak esaten digu materialismoak ez duela gizakiaren bihotza asetzen, eta asko dira zorionaren iturburu balio espiritualetan bilatzen dutenak (nahiz eta balio horiei batzuek oraindik ez duten “aurpegia jartzerik” lortu). Jesusek Satanasen tentaldi materialistari ematen dion erantzunak garai guztietarako balio du: *“Adoratu Jauna, zeure Jainkoa, eta bera bakarrik gurtu”* (Mt 4,10).

Materialismoa ez da gainditzen, gizakiaren bihotza Jainkoarenaganako maitasunera biltzen den heinean baizik; bestela, gizakiaren bihotzak bere askatasuna galtzen du, makina bat esklabotzetan kateaturik. Aldi berean, materialismoa ez da gainditzen gizakiaren bihotza beretzat erdigunetik ateratzen den neurrian baizik; hau da, den guztiaren erdigune izateari utzi eta, karitatea eginez, lagun hurkoarengana irekiz baizik.

Gure gizartean –baita fededun ez direnen artean ere– kultura materialistak asperdura handi bat sortzen duela antzematen da. Bada asaldura santuz egiten den deiadar bat, gizakia bera “denagatik” baino gehiago “daukanagatik” balioesteko joeraren aurka. Gizon-emakume askoren bihotzean bizirik dago Jainkoa ezagutzeko desioa, eta haiengan haziz doa justiziaren alde eta ahulenen susta-

penean jarduteko gogo. Zantzu hauetan Espiritu Santuaren ekintza kontsolatzailea aurkitzen dugu, eta sumatu ere sumatzen ditugu Erreinuaren etorrerako arrastoak.

**3.2.- Arinkeriaren aurrean, kristau-heldutasuna.** Materialismoa eta arinkeria negatiboki epaitzen baditugu ere, ez dezagun ahanztz horren atzean ezkututzen dela zentzugabekeria, tristezia eta barruko hustasuna berdintzeko ahalegin inkontziente eta etsia. Baina, kontua da arinkeriak poztasun artifizialera jotzen duela sarri eta baztertu egiten dituela gizakiaren bihotza aztoratzen duten galdera nagusiak.

Espiritu Santuaren ekintzari esker, gero eta orokorragoa da “arinkeriaren kultura” deritzanak barruan daukan hustasunaren kontzientzia, eta, halaber, existentziaren benetako zentzuan oinarrituriko zorion betea eta egiazkoa bilatzekoa, eta ez errealitatetik ihes eginez lortutakoa.

Kristogan eraikitako “gizaki berriaren” ereduak (ikus *Kol 3,10*) ez du inolako zerikusirik espiritualitate goibel batekin, ezta umore-senaren gabeziarekin ere; baina, aldi berean, ez du zerikusik bizitza serio hartzen ez dutenen arinkeria eta azalkeriarako joerarekin ere.

Apostoluen Aholkuen “*Verbum Domini*” lanaren 123. zenbakian hau berresten zuen Benedikto XVI.ak: “*Esanezinezko dohaina da poza, munduak eman ezin dezakeena. Festak antola daitezke, ez, ordea, poza. Idazteunaren arabera, Espiritu Santuaren emaitza da poza (ikus Ga 5,22)*”. Hortaz, hona hemen gure Pastoral Ekintzaren erronka nagusia: giza heldutasunean (komunikazioa, afektibitatea, sexualitatea, giza maitasuna, epai kritikoa eta abar) eta kristau heldutasunean hezte (bertute teologalek argituriko bertute moralak), eta gizarte mailako harreman pozgarri eta konprometituak sustatzea.

Irmoki sinesten dugu kristau-poztasuna, Jesu Kristok ematen digun itxaropenean sustraiturikoa, munduaren aurrean benetako testigantza ez ezik, lagun hurkoari eman diezaiokegun “eskupeko” preziatuena ere badela.

**3.3.- Erlatibismoren aurrean, Egiaganako fede apala.** Erlatibismoa ez da gure garaiko asmakizuna... Pilatok Jesu Kristori eszeptikoki galdetu zionean “*Egia, zer da egia?*” (*Jn 18,38*), Jesu Kristori harengan Jainko biziaren Semea ezagutu gabe begiratzen diotenen irudi bilakatu zen.

Gure garaiotan, fededun eta fedegabe izatearen muga, agian, ez dago jada Jainkorik badenaren ala ez denaren aitorpenean edo ukazioan. Gaur egun, beharbada, sinestearen eta sinesgogortasunaren funtsezko banalerroa Jainkoaren errebelazioa onartzean edo ukatzean datza. Erlatibismoa espiritualitate “subjektiboren” amore-emailea da, hots, hala, gizakiak berak sortzen du Jainkoaren irudia, baina sistematikoki gogor egiten dio Jainko betiereko eta ahalguztidunak errebelatzeko hautatu duen bide historiko zehatz baten gertakariari, lehenik Israelgo herriarengan, eta geroago, garaia bete zenean, Jesu Kristorengan eman zenari.

Gutako bakoitza gaude deituak Idazteunaren eta Eliz Tradizioaren bidez transmititu zaigun Jainkoaren errebelazioa onartzera eta zabaltzera. Jainkoak bere aurpegia erakutsi, eta bere borondatea azaldu digu, erruki hutsez mundu guztiaren aurrean errebelazio honen hartzaile eta testigu aukeratu gaituelarik, aldi berean.

Jainkoaren Hitza eramatera deituak gaude, haren errebelazio-ko haziren bat jaso duen arren, Eliza Katolikoa gordetzea duen errebelazio osoaren behar gorrian dagoen mundura. Ez gara aldarrikatzen dugun mezua jabe, baizik eta Jainkoaren baliabide, hura munduaren aurrean aldarrikatzeko. Beraz, apalki aitortzen dugu Kristo dela Bidea, Egia, Bizia (ikus *Jn 14,6*).

**3.4.- Laizismoaren eta hoztasunaren aurrean, maitasuna Elizari.** “*Kristo bai, Eliza ez*” postulatuaren aurrean baieztatzen dugu aldi berean santua eta bekataria den Eliza Katoliko hau dela Kristok eratu zuen Eliza eta bere baitan daudela Nazaretoko Jesusek apostoluei agindu zizkien graziazko baliabide guztiak osotasunean.

Kontziente gara Eliza osatzen dugunon bekatuek zauriak sortuko zituztela fededunen eta fedegabeen bihotzetan, eta horiexek dira zuzendu, konpondu eta sendatu behar ditugunak. Baina, horrekin batera sinesten dugu gaurko Elizan –eta historian zeharreko Elizan– badirela testigu argitsuak, Jainkoaren bila dabiltzanei sinesten laguntzen dietenak.

Zein dira, bada, kultura laizista eta antiklerikal baten erdian fedea bizitzeko eta haren berri emateko jarrerak? Era askotakoak dira; baina nabarmentzekoak: bizitza koherentea, pazientzia eta apaltasuna; ausardia eta sendotasuna; prestaketa egokia, besteak beste... eta berezi-bereziki, Elizarenganako maitasun sakon eta egiazkoa.

Zenbait alditan konturatzen gara, laizismo antiklerikalaren atzean aurkitzen ditugun egoera zehatzak direla fedea edo Eliza ukatzea ekarri dutenak; baina, askotan ohartzen gara asmo txar hori egiazkoa baino birtualagoa dela, hau da, Elizari buruz kritikarik gabe egindako legenda beltzen transmisioak eragindakoa. Nolanahi ere, laizismo antiklerikalaren atzean, gabezia sumatzen da, Nazareteko Jesusenganako, Elizako Gurasoek askotan hitz egin duten “Kristo osoaren” misterioarenganako fede sendo eta heldua: *“Gure Erosleak pertsona bakar bat osatzen du Elizarekin”* (San Gregorio Handia).

Eliza maitatu gabe Kristo maitatu ezin dugun bezalaxe, Kristo maitatu gabe ezin Eliza maitatu. Horretarako, beharrezkoa da Elizaren misteriora fede begiradaz gerturatzea, harengan batzar soil edo giza erakunde huts bat baino gehiago ikustea; harengan munduan Jainkoaren presentzia luzatzen duen “Jainkoaren Sakramentua” aurkituz.

#### 4. GURE ERRONKARIK BEHINENA: ELIZA ELKARTASUN ETXE ETA ESKOLA BILAKATZEA

Jarrera zehatz batzuk iradoki nahi nituzke, hastera goazen etapa berri honetan, bakoitzak bakarka –eta agian baita elkarte mailan ere –lantzen ahalegindu beharko genituzkeen jarrerak, alegia.

**4.1. Barruko batasuna eliz elkartean.** Beharrezkoa dugu Eliza, eliza izateaz gain, batasunerako etxe eta eskola ere izango dena. Agerian dago gure elizbarrutiko Elizan barneko batasuna dela aurre egin beharko erronka nagusienetako bat, Donostiako gotzain izateko nire izendapenaren inguruan, komunikabideen aldetik neurrigabeki bizitutako hainbat gertakarik agerian utzi duten bezala.

Batasun falta oztopoa da, gure pastoraltzako ahalegin asko antzutasunera eraman ditzakeen oztopoa. Horregatik, guztiz garrantzitsua da Kristoren batasun-deiari erantzutea: *“Aita, guztiak bat izan daitezela. Horrela munduak sinetsiko du zuk bidali nauzula”* (Jn 17,21). Benetan uste dut egiazko batasunak, Espiritu Santuarengandik sortzen denak, ez dituela ezerezten Elizaren baitatik sortzen diren karisma anitz eta aberatsak, alderantziz baizik. Baina, aldi berean, bistakoa da gure arteko hoztasuna sendatu gabe, eskuraezina gertatzen dela batasunaren dohaina. Eta honekin ez gara batasun abstraktu batez mintza, baizik eta batasun zehatzaz, Elizan batasun-ministerioa agindu zaien haiengan agerian ikusten den hartaz: parrokia-elkartearen eta erretorearen artekoa, elizbarrutiko elkartearen eta gotzainaren artekoa, elkarte katolikoaren eta Aita Santuaren artekoa. Hasierako Elizan eta Ebanjelioetan islatzen den ideala –*“Begira nola maite duten elkar!”*– erronka handi bat da Eliza unibertsalarentzat eta, batez ere, gure Eliza partikularrarentzat.

**4.2. Bihozberritzea.** Norberaren bihozberritzea da batasunera iristeko egin dezakegun ekarpenik handiena. Oso oker genbilzke batasuna faltaren arrazoirik nagusia ideologia mailakoa dela pentsatuko bagenu. Hori garrantzitsua izanik ere, berez, funtsezkoena eta oinarrizkoena norberaren bihozberritzea da: *“gizon zaharra”*,

grinazkoa, erantzten dugunean; Jainkoaren eta lagun hurkoaren maitasunagatik geure buruari uko egiteko prest gaudenean; besteen zerbitzu apalean azken postuan jartzeko azkar jokatzean... orduan dago, eta orduan baino ez, batasuna gure eskumenean. Egia bada maitatzeko aurretik ezagutzea ezinbestekoa dela, agian, are egiazkoagoa da ezagutu ahal izateko derrigorrezkoa dela maitatzea.

Sinplifikatzeko arriskurik gabe, oraintxe esandakoa laburbiltzen ausartuko naiz: zenbat eta santuago, orduan eta batasun estua-goa (Kristorengan batasuna handiagoa dugulako); eta alderantziz, zenbat eta santutasun gutxiago, orduan eta hostasun eta batasun eza handiagoa (zatitzen eta elkarren aurka jartzen duten ideologiekin gehiago identifikatzen garelako).

Ez gara hasiko orain xeheki azaltzen zein diren bihozberritzeko baliabide beharrezkoak, zeren eta Elizak oroitaraziko baitizkigu Urte Liturgikoan zehar: otoitza, karitatezko obrak, penitentzia eta sakrifizioak, Eukaristiaren eta adiskidetzearen sakramentuak eta abar.

**4.3. Topaketa eta elkarrizketa.** Donostiako elizbarrutia osatzen dugunon bihozberritze pertsonalaz gain, garrantzi handikoa da elkarren arteko topaketak eta elkarrizketak bilatze, batasunerako bidea eginaz. Esperientziak erakusten digu, gure Elizbarrutiko katolikoan artean desadostasun nabarmenak ditugun arren, askoz gehiago direla batzen gaituzten alderdiak, banantzen gaituztenak baino. Topaketa pertsonalak dira horren lekuko.

Alabaina, badira gaingaitzen ikasi beharko ditugun elementu desorekagile oso nabarmenak. Komunikabide batzuetatik jasotzen diren Elizaren bizitzari dagozkion pertzepzio deformatuei buruz ari naiz, bereziki, erlijio-alorreko informazioan adituak diren Interneteko zenbait orrialdeetatik eta idatzizko beste bideetatik eliz bizitzarako elikagai toxiko diren polemika, isurtze anonimoak, ausarkeriazko epaiak, erresuminak, asmo txarrei eta abarri buruz.

Elizan baditugu barne-komunikaziorako bideak eta haietaz baliatuz komunika gaitzke eta komunikatu behar dugu, eliz bizitzaren irudi morbosoa eta negatiboak erabiltzeko biderik eman gabe, hainbat komunikabide laizista eta antiklerikal joerakori.

Horregatik, datozen urteetan bilerak egiteko prest nago eta hartan saiatuko naiz batez ere; hain zuzen ere, pertsonalki nahiz elkarte mailan iritzi-trukaketa gertuko eta irekiak egiten, elkar entzuteko beldurrik gabe, gertutik elkar ezagutzeko... Elizbarrutiko Pastoral Egitasmoaren sarrerako go-goeta hauek berak abiapuntu egokia izan daitezke gure bileretarako.

Kontziente gara, hala ere, elkarrizketa teologiko-pastorala ezin interpreta daitekeela negoziaketa modu gisa. Fede katolikoa ezin daiteke gure aukera guztien arteko balizko “izendatzaile komun” baten ondorio izan eta ez du izan behar, izan ere, fede-gordailua Elizaren Tradizioak gure esku utzi du, eta guri dagokigu jasotzea, bizitzea eta leialki transmititzea. Baina, argi dago sarritan egindako elkarrizketak eta bilerak lagungarri izango direla gure pertzepzioak azaltzeko eta ulertzeko; hala iritsi baikaitezke konplexu zirudiena erraz ulertzera. Beraz, uste sendoa dugu Kristorengana pertsonal mailan nahiz elkarte mailan bihurtzearekin batera, baldin eta gure arteko elkarrizketak eta bilerak egiten baditugu, benetako elkartasun bidean abiatuko garela.

Bedeinka gaitzala eskatzen diogu Espiritu Santuari, Eliza “elkartasunezko etxe eta eskola” bilakatzeko gai izan gaitzen.

## 5. KONTZIENTE ETA ERAGINKOR GURE GIZARTEKO ERRONKEN AURREAN

Testuinguruz Elizakoa izateaz gain, Pastoral Egitasmo hau baldintza oso berezietan jaio da:

**5.1. Krisialdi ekonomikoaren luzapena gure artean.** Garrantzitsua litzateke Elizaren Irakasbide Soziala sakonetik aztertea. Iruñea-Tutera, Bilbo, Gasteiz eta Donostiako gotzainok idazki bat idatzi genuen 2011ko Garizuman “*Ekonomia pertsonen zerbitzura*” izenburupean. Hala, ekarpen txiki bat egin nahi izan genuen, krisialdia gainditzea parez parekoa gerta zedin, ondasun materialekin eta gure bizi-estiloarekin zerikusia izan zezaketen irizpide moral askoren ikuskatze sakonarekin.

Idazki Pastoralean eskatzen zen bezala, bat egin nahi dugu kristauok krisialdi hau gehien nozitzen dutenekin; immigranteekin, lehen lanpostura iristeko zailtasuna duten gazteekin, adin handiko langabetuekin eta abar. Hala, Elizak aholkua luzatzen die gizarte-eragile, erakunde, administrazio publiko eta borondate oneko pertsona guztiei, jarrai dezatela krisialditik irteteko modu bateratu eta elkartasunezko bat bilatzen; gure gizartearen garapenerako oinarri etiko tinkoak eraiki; lanpostu duinak sustatu, eta ahalegin daitezela ahulena eta zigortuenak defendatzen, gizarte-justiziaren eskakizun eta froga moduan.

**5.2. Behin betiko bakearen itzaropena.** Modu berezian elkartzen gara ETako terrorista taldea behin betiko deuseztatzearen aldarria egiten dutenekin. Sufritzen dauden biktimei lagun egitera deituak sentitzen gara, eta Ebanjelioa eskaintzen dugu denen kontsolagarri eta sendagai gisa. Gure ustez, bakegintzan Elizak egin dezakeen ekarpenik handiena adiskidetzeko bitartekari izatea da Jainkoarekin eta senideekin, nahiz norbera bere buruarekin.

Gauzak horrela, politikoek topaguneak bilatzen ahalegindu beharko dute, hala ere, gure ustez bakea ez daiteke itun politiko hutsetatik jaio, baizik eta bihotzez berritzea ezinbestekoa du, nahitaezko eta funtsezko urrats: bihozberritzerik gabe ez dago adiski-

detzerik, eta adiskidetzerik gabe ez da inoiz benetako bakerik iritsiko. Elizak bakearen alde otoitz egiten du, eta gure herria osatzen dugun guztion zerbitzura, oraingo eta hemengo baliabide izatera konprometitzen da

**5.3. Oihu bat Hirugarren Mundutik.** Indarrik handienaz agertzen zaigu karitaterako deia, batez ere Hirugarren Munduko behartsuen garrasi lazgarrian. Idazki Pastoral hau idazten ari naizen unean, etengabe iristen dira gugana gosete izugarri baten zigorpean dagoen Somaliako herriari buruzko albisteak. Ez izan zalantzarik, hemengo eta hango larrialdiei guk emandako erantzuna izango da gure kristau izatearen benetakotasun-froga. Behartsuen deiadarra Jainkoak guri geurekoikeria eta nartzizismoa sendatzeko eta funtsezkoa biltzeko egiten digun deiaren alderdi bat da.

**5.4. “Biziaren aldeko kultura baten” alde.** Karitaterako deia giza biziaren defentsan ere agertzen zaigu, hau da, sortze beretik heriotza naturalera bitarteko biziarena. Kristauak ezin du, ikusmolde materialistaren aldetiko giza biziaren manipulazioa ikusita, altxatu gabe gelditu inola ere. Ezin gaitezke jarri jaio aurretiko gizakiaren gupidagabeko suntsipenera. Errugabeen oihua Jainkoarengana iristen da, eta “biziaren aldeko” konpromiso argi eta garbia eskatzen digu, sasiprogresismo batean ezkutaturik hedatzen den “herioaren kultura” baten aurrean.

**5.5. Familia egonkor baten alde.** Aurre egin beharreko zorigaitz eta erronka handienetako bat dugu familiaren krisia eta ezkontza-hausturen kopuru larria ere. Gizakiaren heldutasuna, hein handi batean, familiaren egonkortasunean elikatzen da. Jainkoak maitasunean bat egiteko sortu gaitu, hortaz, honek huts egiten badu, balantza egiten dute gure zorion-oinarriek. Eliza, oro har, eta bereziki gutako bakoitza testigu izatera deituak gara, hala nola, kristau-maitasunak ez duela iraungitze-datarik, alderantziz baizik, baduela gaitasun gure bizitza maitasun eskuzabalaren eskaintza bilakatzeko, gurutzeak besarkatu, eta, aldi berean, gure existentziako poztasun handi nahiz txikiak gozatuz.

## 6.-“ETXEA JAUNAK ERAIKITZEN EZ BADU” (Sal 126)

Pastoral Egitasmo baten arrakasta, niri dagokidanez bederen, lau eragileren konbinaketan datza: ardura apostolikoa, ebanjelizatzaileen arteko elkartasuna eta estimua, garaien zantzuen bereizketa asmatua, eta otoitza eta graziazko bideen bermea.

Ez da nire asmoa orain lau puntu horien argibideetan abiatzea, hurreratu baikara, gutxi-asko, honako Pastoral Egitasmo honetan horietara. Baina bukaerako lerro hauetan, garrantzi berezia duela deritzot laugarren puntua azpimarratzeak: *“Etxea Jaunak eraikitzen ez badu, alferrik ari dira etxegileak. Hiria Jaunak zaintzen ez badu, alferrik daude erne hirizainak...”* (Sal 126).

Pastoral Egitasmo hau aurrera eramateko aukeratutako baliabideen artean, Donostiako parrokia batean egingo den Etengabeko Adorazioa nabarmentzen da. Han, etengabe gurtuko da Jauna Eukaristian. Horrez gain, gure nahia da otoitz-leku hau izan dadila harre-ra-leku eta entzute-leku, Jainkoaren bila dabilzanentzat. Pastoraltzako beste baliabide guztien artean, honek nabarmentzen du, ikur gisa, Jesu Kristo erdigune dela Elizbarrutiko bizitzan. Funtsean ebanjelizazio-lanak “Kristozentrikoa” izan behar du. Jesusi jarraitu nahi diogu edo, areago, Pastoral Idazki honentzat hautatutako izenean adierazten den bezala, apalak eta saiatuak izatea dugu xede, **Berak gida gaitzan** beraren jarraipenean.

Testuinguru honetan eta Pastoral Idaztiaren nahiz Pastoral Egitasmoaren izenburua hautatzeko baliatu dugun esparru moduan, Benedikto XVI.a Aita Santuak bere aitasantutzaren hasierako homilian esan zituen hitzak ekarri nahi nituzke gogora: *“Gobernatzeko nire benetako programa da nire nahia ez egitea, neure asmoei ez jarraitzea, baizik eta, eliza osoarekin batera, Jaunaren hitza eta borondatea entzutera jartzea eta Hari gida nazan uztea, gure historiako une honetan Bera izan dadin Elizaren gidari”*.

Bihotz-bihotzez eskertu nahi nieke Pastoral Egitasmo hau prestatzeko orduan elizbarrutiko Elizetako hainbat pertsona eta erakundek izan dute esku-hartze zabal eta arduratsua. Egia da go-tzainarena dela eginkizun horren betebeharrak eta erantzukizuna, bai-na zuengandik jasotako laguntza balio handikoa izan da niretzat. Zuen ekarpenetan intuizio iragarleak nabaritu ditut, eta, zenbaitekin osoki identifikatu ez banaiz ere, baliagarri suertatu zaizkit Egitasmoaren azken emaitzak ñabartzeko.

Gure Elizbarrutiko Zaindaria den Arantzazuko Amaren egu-nean bukatu dut Pastoral Egitasmoaren idatzi hau, Zeruko Erregina dugunaren laguntza otoizka eskatuz: Santa Maria, Jesusen Ama eta Elizaren Ama egizu otoitz gure alde!

Donostia, 2011ko irailaren 9a

† José Ignacio Munilla  
*Donostiako Gotzaina*

**2011-2016**  
**ELIZBARRUTIKO PASTORAL EGITARAUA**

**2011-2012 IKASTURTERAKO**  
**HELBURU ETA BALIABIDEAK**



Donostiako Elizbarrutiko Kontseiluetako hainbat kontseilari-  
ren ekarpenez, 2011-2016 bosturteko honetarako landu diren hel-  
buruak hiru ataletan daude bildurik: otoitza, karitatea eta ebanjeli-  
zazioa. Eta atal bakoitza, berriz, beste zenbait alorretan zatitzen da,  
eta haietan zehazten dira bakoitzari dagozkion helburuak.

Helburu orokorrak direnez, gure tokiko elizaren errealitatea  
abiapuntutzat hartuta egin diren arren, ez dute jasotzen Elizbarru-  
tiko bizitzaren xehetasun bakoitza. Kristau-elkarteei dagokie (hain-  
bat ordezkaritzen eta idazkaritzen laguntza eraginkorraz) helburu  
horiek eguneroko bizitzan osatzea eta zehaztea, Jainkoaren nahia-  
ren arabera eta Eliza osoaren batasunean.

2011-2016 bosturtekoan otoitza, karitatea eta ebanjelizazioa-  
ri dagozkion helburu horiek lantzen joango garen arren, urte ba-  
koitzean, atal edo alor jakin bat azpimarratuko dugu, besteak ahaztu  
gabe. Hain zuzen, 2011-2012. urtean, gure pastoral-bizitza karita-  
teari eta ebanjelizazioari dagozkien helburuetara bideratzeari utzi  
gabe, otoitzari dagozkion helburuak hartuko ditugu kontutan be-  
reziki. Honela, otoitzaren alorretako helburu orokorretara zuzen-  
tzen gaituzten baliabideak eskaintzen dira ikasturte honetarako  
egitarauan.

Hurrengo pastoral-ikasturteetan, alde batetik baliabide horiek  
sakondu ahal izango dira (lortu diren emaitzen arabera) eta, horrez  
gain, bosturteko osorako kontutan hartu nahi diren beste alor  
zehatzak azpimarratzen jarraituko dugu, ezarian-ezarian. Betiere,  
helburu orokorrekin bat eginez eta unean uneko pastoral-beharrei  
eta erronkei erantzunez.

**2011-2016**  
**ELIZBARRUTIKO PASTORAL EGITARAUA**  
**HELBURU OROKORRAK**

2011-2016 Pastoral Helburu orokorren eskema:

**I. OTOITZA**

1. Liturgia eta Sakramentuak
2. Jainkoaren Hitza
3. Kontenplaziozko otoitza
4. Gogo-jardunak eta erretiroak

**II. KARITATEA**

A. Elkartasuna:

1. Pertsonak
2. Kontseiluak
3. Katolikotasuna

B. Eskaintza:

1. Errukiorrak, justiziarekin konprometituak
2. Adiskidetuak, bakegileak
3. Sorkariak, Kreazioarekin arduratsuak

### **III. EBANJELIZAZIOA**

- A. Ebanjelizatzaileak:
  - 1. Laikoak
  - 2. Pertsona sagaratuak
  - 3. Ministro ordenatuak
  
- B. Ebanjelizazioa:
  - 1. Familia
  - 2. Eskola
  - 3. Haurrak
  - 4. Gazteak
  - 5. Helduak
  - 6. Kultura



# I. OTOITZA

## 1. Liturgia eta sakramentuak

Kristo dago Elizaren erdian (*Mt 18,20*), gure artean, “batez ere ekintza liturgikoetan”: sakramentuetan eta aldarrikatzen den Hitzean (*Sacrosantum Concilium*, 7). “Eskerrak ematea eta gorespena berreskuratzea” etengabe deitzen zaigu, “dohainik ematen zaigun salbamena onartu eta doan eskaintzen duen Elizaren ezinbesteko alderdi bezala” (*Eliza Ebanjelioaren zerbitzura*, 13). Horregatik nahi dugu:

1. Eukaristiaren ospakizunak zaintzea.
2. Bataioaren Sakramentua familiekin batera prestatzea eta elkarreentzat zein garrantzizkoa den azpimarratzea.
3. Elkarteko helduekin aurrerapausoak egitea Bataioko Sakramentuaren prestaketan.
4. Bataiatuei, Elizarekin batasunean, Adiskidetzearen Sakramentuan parte hartzea ahalbidetzea.
5. Sakramentuetan parte hartzetik aldenduak dauden pertsonekin buruturiko ospakizunek nolako pastoral-aukera eskaintzen duten kontzientzia hartzea.
6. Sakramentuak gizarte-ekintza soilera murrizteko arriskua-rekin erne egotea, hutsalkeria saihesteko.

## **2. Jainkoaren Hitza**

Jainkoaren Hitza da Kristo (*Jn* 1.1). Eliza osoarekin batera, Hitzarekin dugun harremanean sakondu nahi dugu, zeren eta, "historian zehar, Jainkoaren Herriak han aurkitu izan baitu beti bere indarra, eta eliz elkarteak ere harekin hazten baita gaur egun ere, hitza entzunez, ospakizunetan eta Jainkoaren Hitza aztertuz" (*Verbum Domini*, 3).

Hauek dira gure helburuak:

1. Liturgian Jainkoaren Hitzak duen lekua errespetatzea.
2. Jainkoaren Hitzaren irakurketa pertsonala eta elkartekoa bultzatzea.

## **3. Kontenplaziozko otoitza**

Kontziente gara kontenplaziozko bizitzan nabaritzen dela Elizaren zereginaren muina: Jainkoaren irrika (*Sal* 63,2) eta Hura biilatzea (*Sal* 119,2). Horregatik nahi dugu:

1. Elizbarrutian presente dagoen kontenplaziozko karismaren ezagupena sustatzea.
2. Kontenplaziozko eta adoraziozko otoitza bultzatzea.
3. Familian egindako otoitza suspertzea.

## **4. Gogo-jardunak eta erretiroak**

Jakin badakigu: "lan eta ekintza guztietan arreta handiagoa jarri behar dugu Espirituari entzuten, arduratsuago izanez Berak ari duen langintzarekiko eta Beraren deiei erantzunez" eta "horrek Jainkoaren esperientzia gehiago lantzea eskatzen digu, eta erne egotea Haren salbamen- ekintzaren zantzueta" (*Eliza Ebanjelioa-*

*ren zerbitzura*, 44). Haren graziari esker, San Inazio Loiolakoa federa bihurtu zen tokiko eliztarrak gara guztiok; hau da, Eliza Unibertsalari Gogo-jardunak eskaini dizkion santuaren herrikoak. Horregatik nahi dugu:

1. Elizbarrutitik Gogo-jardunak egiteko eskaintza luzatzea, laikoei, sagaratuei eta apaizei.
2. Senideari harrera egiteko eta entzuteko espiritualitatea sustatzea.
3. Laguntza eta gidaritza espirituala bultzatzea.



## II. KARITATEA

Jesu Kristorengan osorik ematen zaigun Jainkoaren maitasun-esperientzia da kristau-otoitza (Jn 13,1). Esperientzia horrek eragiten digu lagun hurkoa maitatzera: Elizaren baitan bizitzen den senideen elkartasunera (batasuna) eta, Elizatik, munduari ematera (eskaintza).

### A. Elkartasuna

*“Ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita hauen predikua-  
ren bidez niregan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu guztiak bat izan  
daitezela. Aita zu nirekin eta ni zurekin biok bat garen bezala, hauek  
ere bat izan daitezela gurekin. Horrela, munduak sinetsiko du zuk  
bidali nauzula. Zuk eman zenidan aintza bera eman diet nik, bat izan  
daitezen, gu biok bat garen bezala: ni hauekin bat eta zu nirekin bat.  
Horrela guttiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du  
zuk bidali nauzula eta ni maitatu nauzun bezala maitatu dituzula  
hauek ere” (Jn 17,20-23).*

### 1. Pertsonak

Aurpegi eta izen jakin bat dugun pertsonok osatzen dugu Eliza, eta ahal den neurrian, elkar ezagutu nahi dugu, Jainkoaren grazia lagun, senide-maitasunean hazteko. Horretarako bilatzen dugu:

1. Elkartasunera eramango gaituzten topaguneak sustatzea.
2. Gure parrokia-elkarteetako bizitzan partaide izango diren kide berriei (beste herrialdeetatik datozen kristauei, katekesiko haurren gurasoei, elkarre-bizitzan txertatzea biltzen duten gazteei...) sarbidea erraztea.
3. Jainkoak Gorputz bakar bat izateko eman dizkigun hainbat karisma elkarri onartzea eta zaintzea.
4. Gure kristau-izaera errealitate garrantzizko eta eraldatzaile gisa bizitzea. Gure ideologia politikoak bigarren mailako errealitatetzat hartzea, elkarrenganako begirunean eta senide-maitasunean.
5. Lagun hurkoaren ama-hizkuntza aintzat hartzea eta ezagutzen saiatzea, harengana hurbiltzen gaituen ondare delako.
6. Aurreiritziak gainditzea eta batzen gaituen hartan sinestea, esaerak dioen bezala: *In necessariis, unitas; in dubiis, libertas; in omnia caritas* (“beharrezkoetan, batasuna; zalantzetan, askatasuna; denetan, karitatea”).

## 2. Pastoral-egiturak

Topaleku nagusiak dira Elizbarrutian Ebanjelioaren zerbitzura dauden parrokiak, Pastoral Barrutiak, artziprestaldeak, eta hainbat Kontseilu, ordezkaritza eta idazkaritzak, gure tokiko Elizan erromes garen kristauen senidetasuna eta elkarrekikotasuna ahalbidetzen nahiz egiaztatzen baitira. Horregatik nahi dugu:

1. Kontseilurik ez dagoen parroketan Kontseiluak eratzea, artziprestaldetako Kontseiluei edo Pastoral Barrutiei dagoen printzipio subsidiarioa errespetatuz (betiere, printzipio hori parrokia txikietako errealitateari egokituz).
2. Lehendik eratuak dauden parroketako Kontseiluak artziprestaldetako Kontseiluekin eta Pastoral Barrutiekin koordinatzea.

3. Leku bakoitzean etorkizunean Pastoral Barrutiak sortzeko aukerak aztertzea.
4. Elizbarrutiko Elizak dituen kontsulta eta gobernu-erakundeetan dagokion parte-hartzea sustatzea.
5. Elizbarrutiko ordezkarietzek eta idazkarietzek bakoitzak bere pastoral-alorrean dituzten ardurak egiazko beharretara eta erronka zehatzetara bideratzea.
6. Elizbarrutiko hainbat ordezkarietzek eta idazkarietzek Pastoral Barrutiek, artziprestaldeekin eta parrokiekin izan beharreko harremanak eta koordinazioa ahalbidetzea.

### 3. Katolikotasuna

Eliza Katolikoaren zati bat da Elizbarrutiko komunitate hau, Gotzaina buru dutela hainbat karismaz eta ministerio desberdinez bedeinkatua. Katolikotasun horren hainbat adierazpen dira Elizbarrutiko artzaina eta tokiko Eliza guztia, ordena eta institutu erlijiosoak nahiz mugimendu apostolikoak. Halaber, beste herrialdeetan jaioak izanik, orain gure artean fedean suspertuz erromes ditugun kristauak. “Gizaki guztiak dira, beraz, bake unibertsalaren ezaugarri eta eragile den jainkoaren herriaren batasun katolikora deituak. Batasun honen barruan daude, hainbat eratara, edota hartara bidean dira: katolikoak, gainerako kristauak eta baita Jainkoaren graziaz salbamenera deituak diren gizon-emakume guztiak ere orokorki” (*Lumen Gentium*, 13). Hau guztiagatik nahi dugu:

1. Eliza osoarekin batasuna sendotzea.
2. Vatikanoko II Kontzilioaren irekierako 50. urteurrena eta Eliza Katolikoaren Katezismoa aldarrikatzearen 20. urteurrena ospatzea.
3. Elizaren misiolari izaera edozein adin eta alorretako jendearekin lantzea.

4. Gure Elizbarruti kideekin, Bilbo zein Gasteizekin, eta Iruñea-Tutera gure Eliz probintziako elizbarrutiek, nahiz Baionakoarekin harremanak sakontzea.
5. Espiritu ekumenikoa sendotzea: gainerako kristau-eliza eta erlijioekin batasunean sakontzea, bereziki Eliza Ortodoxoko senideekin.

## **B. Eskaintza**

Kristauok, bihotza Jainkoz beterik (otoitza) eta senideen eta senideenganako maitasunaz zabaldurik (elkartasuna), gure alde eskaini den Jesusenganako fedea aitortzen dugu, geu besteei eskainiz (*Jn 13,12-15*).

### **1. Errukiorrak eta justiziarekin konprometituak**

Gure kristau-elkarteen erdian (*Mt 24,40.45*) behartsuak jarri nahi ditugu, Kristorekin, jatekorik ez zuen jendetzaren errukia izan zuen harekin (*Mk 8,2*). Izan ere, "Aitak, gizaki guztiengan Kristo, geure senidea, hitzez eta egitez ezagut eta benetan maita dezagula nahi du, honela egiaren lekukotasuna emanaz, eta zeruko Aitaren maitasun-misterioa besteekin zabal dezagula" (*Gaudium et Spes*, 93). Horregatik, honako hauek ditugu konpromiso:

1. Pobrezia eta gizarte-bazterkeria erabat erauzteko lan egitea
2. Ahulenek sufritzen duten esklabotza-modu berrien aurka borrokatzea.
3. Emakumeen aurkako gogorkeria aktiboki salatzea eta gizonak eta emakumeak elkarrekiko duintasunean hezteak.
4. Pertsonaren bizia defendatzea; hasi sortzen denetik eta heriotza naturalez hiltzen denera bitartekoa.

5. Gaixotasunen bat duen lagun hurkoari lagun egitea, bakardadearen mina arintzeko.
6. Kristauen parte-hartzea sustatzea Gizarte Karitatezko Pastoraltzan: Caritas, Osasun Pastoraliza eta Espetxe Pastoraliza.
7. Bereziki gehien sufritzen dutenen aldeko Eliza abegikor, hartzaile eta irekia izatea.
8. Gizarteko errealitatea Elizaren Irakasbide Sozialaren argitan aztertzea.
9. Jose Maria Arizmendiari apaizak Elizaren Irakasbide Soziala nola aplikatu zuen sakontzea, bere jaiotzaren urteurrenari begira (1915-2015).

## 2. Adiskidetuak eta bakegileak

Kristorengan adiskidetuak (*Kol 1,20*), gure herriaren adiskidetzea ahalbidetu nahi dugu. Beraren izenean, Jainkoarekin adiskidetzea proposatzen dugu (*2Ko 5,20*), gizakion arteko eta herrien arteko adiskidetzeko bide modura. Bakegileen zoriona ezagutzera deituak gaude, "haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko" (*Mt 5,9*). Horregatik hauek ditugu konpromiso:

1. Otoitz egitea eta heziketan lan egitea, gure herriaren adiskidetze eta bizikidetzaren alde (*Eliza Ebanjelioaren Zerbitzura, 32*).
2. Munduko beste herrialdeei erasaten dieten gogorkeria eta injustiziazko egoeren kontzientzia hartzea.
3. Injustiziaren salakuntzan eta bihozberritzearen nahiz barkamenaren aldarrikapenean konprometitzea.

### **3. Sorkariak, Kreatzioarekin arduratsuak**

Kreazio osoa intzirika dago gurekin, Jainkoak noiz askatuko gaituen zain (*Erm* 8,22), Jainkoak bere kreatzioan ezagutu zuen ontasuna berreskuratzeko zain (*Has* 1,31).

Lortu nahi duguna:

1. Kreatzioa dohain gisa kontenplatzea eta Kreatzaile aitortzea Jainkoa.
2. Sorkari guztien zainketan konprometitzea, Jainkoaren irudiko eta antzeko den pertsonaren duintasun paregabearen kontzientzia harturik.

### III. EBANJELIZAZIOA

Otoitz egiten duen Eliza, elkar maitatzen eta behartsu guztien zerbitzuan diharduten kristauena, eliza ebanjelizatzailea da.

#### A. Ebanjelizatzaileak

Bakoitzaren bokazioaren arabera, denok gaude Ebanjelioa aldarrikatzera deituak, eta kontziente gara lehen pertsonalki onartutako deia dela gure aldarria. “Ebanjelizatze-misio hau guztion zeregina eta erantzukizuna da. Premiazko eginkizuna dugu geure elizbarrutian, kristau-elkarte, talde eta familietan, eta baita bataiatu bakoitzean ere ebanjelizatze-kontzientzia eta -ahalmena esnaraztea” (*Eliza Ebanjelioaren Zerbitzura*, 46).

#### 1. Laikoak

“Laikoei dagokie, beren bokazioagatik, Jainkoaren erreinua bilatzea munduko arazoetan jardunez eta hauek Jainkoaren asmoen arabera bideratuz. Munduan bizi dira; hau da, munduko lanbide eta eginkizun guztietan eta bakoitzean, familiako eta gizarteko bizitzaren egoera arruntetan, horrek guztiak ehuntzen baitu haien bizitza. Haraxe dei egiten die Jainkoak, Ebanjelioaren espirituak argi eginda beren ogibidean jardunez, mundua, legamiak bezala, barrutik santutu dezaten” (*Lumen Gentium*, 31).

Horretarako xedeak dira:

1. Laikoen espiritualitatean sakontzea, sekularrak direnaren kontzientzia hartuz.
2. Mundua mundutik bertatik santutzea, altxagarri balira bezala, profesional onak izanez eta beste laikoekin norberaren itxaropen eta zailtasunak partekatuz.
3. Lanbidean jarduera on batek eskatzen dituen alderdietan prestatuz jarraitzea.
4. Itxaropenaren berri eman ahal izateko gai teologikoetan prestatzea.
5. Eukaristiaren eta Hitzaren zerbitzuan eraginkorki eta eliz mailan parte-hartzea.
6. Gizartearen eraldaketarako konpromisoan, prestakuntza espirituala ahalbidetzea eta hartan laguntzea.
7. Sekularren Apostolutzako Ordezkaritza berrantolatzea.

## 2. Pertsona sagaratuak

“Ebanjelioko aholkuak, Jainkoari sagaratutako kastitatea, pobretasuna eta menpetasuna, Jaunaren hitz eta egintzetan oinarrituak, eta apostolu eta Eliz Gurasoek baita eliz irakasle eta eliz artzainek gomendatuak direnez gero, Elizak bere Jaunarengandik jaso eta haren graziaz beti gordetzen dituen jainkozko dohain dira” (*Lumen Gentium*, 43). Gure elizbarrutian asko dira, aholku ebanjeliko horiek praktikatu, euren bizitza Eliza osoaren onerao eskaintzen duten gizon-emakumeak. Hala, “norberaren indarren eta bokazioaren arabera, bai otoitzaren bidez eta bai apostolutzaren bidez ere” lan egiten dute, “Kristoren erreinua arimetan sendotu eta finka dadin eta mundu osoan zehar zabaldu dadin” (*Lumen Gentium*, 44).

Horregatik nahi dugu:

1. Sagaratutako bizitzaren karismak hobeto ezagutzea eta haiekin lankidetzaz estuagoa izatea, Elizbarrutiko Elizakoak baitira.
2. Sagaratutako bizitzaren karisma berrietara irekiak egotea.
3. Elizbarrutiko Pastoral bizitzan sagaratuen partaidetza bultzatzen jarraitzea.
4. Kontenplaziozko Bizierako komunitateen arduraren liturgikoa eta arduraren pastoralak izatea.
5. Kontenplaziozko komunitateei, beharrik handiena dutenei, erabakitasunez laguntzea eta zaintzea.

### 3. Ministro ordenatuak

“Jainkoak sortua den eliz ministerioan maila desberdinetan aritu dira antzinatek apezpiku, apaiz eta diakono izenaz ezagutu izan direnak” (*Lumen Gentium*, 28). Konkreterik, apaizek, Eukaristian, Adiskidetzaren Sakramentuan eta gaixoei lagun egiten, “Kristoren antzera” jarduten dute Itun Berriko apaizgoaren ministerioan. “Jainkoaren familia biltzen dute senitate bat bezala batasun-gogoz pizturik, eta Jainko Aitarengana eramaten dute Kristoren bitartez Espirituarengan” (*Lumen Gentium*, 28). Horretarako nahi dugu:

1. Apaizgintzaren sakramentua indartzea, gure elkarteetan, eta apaizaren irudia, gizartean.
2. Apaiz ministeriorako Bokazio Pastoralak suspertzea.
3. Diakonotza Iraunkorra apaiz ministerioaren bokaziozko aukera moduan proposatzea.
4. Apaizen bizitza espiritualak zaintzea.
5. Apaiz erretiratuak esker onez zaintzea.

6. Lanean diharduten apaizen errealitate pertsonala eta pastoralara ezagutzea.
7. Apaizei euren egoera jakinaren arabera laguntzea.
8. Apaiz gazteen artean bizikidetzako bilerak sustatzen jarraitzea.

## B. Ebanjelizazioa

“Denei egin behar zaie konfiantzaz Kristoren proposamena. Helduei, familiei, gazteei, haurrei zuzendu behar zaie, ebanjelioaren mezuaren erabateko eskaerak inoiz ezkutatu gabe, pertsona bakoitzaren eskaerei kasu eginez, sentsibilitateari eta mintzaerari dagokionez” (Joan Paulo II.a, *Novo Millennio ineunte*, 40).

### 1. Familia

“Kristau-familia pertsonen arteko batasun da, Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren elkartasunaren isla eta irudi, eta ugaltzeko eta hezteko duen eginkizuna Jainkoaren kreazio-lanaren ispi-lua da. Otoitzean eta Kristoren sakrifizioan partaide izatera deitua. Eguneroko otoitzak eta Jainkoaren Hitza irakurtzeak sendotu egiten du harengan karitatea. Ebanjelizatzaile eta misiolari da kristau-familia” (*Eliza Katolikoaren Katezismoa*, 2205).

Elizbarrutiko Familia Pastoraltzaren barruan, familia jakin batzuk egunetik egunera zerbitzatzen diharduen Familientzako Aholku Etxeak (FAE) bere 20. urteurrena ospatzen du ikasturte honetan (25. urteurrena ospatuko dugu bosturteko honen bukaeran).

Gure helburuak familiaren ebanjelizazioan:

1. Familia pastoraltzaren ikuspegi berri baterantz abiatzea.
2. Familia pastoraltzako elizbarrutiko organigrama finkatzea eta sendotzea.
3. Artziprestalde bakoitzean familia pastoraltzako talde ordezkariak (parrokiak, eskolak, mugimenduak) sortzea, sendotzea eta laguntzea.
4. Senar-emazteen eta familiaren maitasun-bokazioan pres-tatzeko eta hazteko topaguneak ahalbidetzea.
5. Zailtasunetan edo arazoekin bizi diren familiei laguntzea.
6. Familia pastoraltza osotasunean sendotze aldera, Elizbarruti mailan ekimenak antolatzea.
7. Bilbo, Gasteiz eta Iruñeko familia pastoraltzako ordezkari-ritzekin elkartasuna eta lankidetzatza sendotzea.
8. Gizartearen oinarritzko zelula gisa familiak duen garrantzia helaraztea eta gizartearen hura erabakitzaile dela konturazten laguntzea.

## 2. Eskola

“Ederra da eta garrantzi handi-handikoa, gurasoei berauen egitekoan lagunduz eta giza komunitatearen izenean, eskoletan heziera emateko zeregina betetzen dutenen bokazioa” (*Gravissimum educationis*, 5). Vatikanoko II. Kontzilioak eskola katolikoaren ezaugarri berezia “askatasunezko eta maitasunezko eskola elkarte sortzea” dela dio, “gaztetxoei, bataioan eginak izan ziren sorkari berriaren arabera beren buruen garapenean hazten laguntzea, eta, azkenik, giza kultura osoa salbamen-mezuaren arabera antolatzea, ikasleek munduaz, bizitza zeta gizakiaz lortuz doazen ezaguera fe-deak argitua izan dadin” (*Gravissimum educationis*, 8).

Horretarako nahi dugu:

1. Hezitzaileen lana aintzat hartu eta lagundu.
2. Parrokiako eta elizbarrutiko ikastetxeak eraginkorki koordinatzea.
3. Ikastetxe katoliko guztien artean lankidetzat estua sustatzea.
4. Eskola publikoetako Guraso Katolikoaren Foroaren eraketan parte hartzea.
5. Gurasoek seme-alabak euren sinestean arabera hezteko duten eskubidea errebindikatzea.
6. Erlijioaren klasea izateko eskubidea defendatzea.

### **3. Haurrak**

Katekistak dira gure elizbarrutian presentzia ebanjelizatzaile bizenetariko bat. Familiarekin batera (eta zenbait kasutan eskolarekin) Elizaren lekukorik hurbilekoenak dira haurrentzat. Honako helburu hauek ditugu haurren ebanjelizaziorako:

1. Familian federa esnatzeko beharrezkoak diren baliabideak jartzea.
2. Otoitz egin, ospatu, kontatu eta haurrari bere fede-esperientzia garatzen laguntzea.
3. Katekisten prestakuntza iraunkorra zaintzen jarraitzea, Elizbarruti mailan, artziprestalde nahiz Pastoral Barruti mailan.
4. Kontuan hartzea txikienekin udako jolas-pastoral jarduerak eskaintzeko aukera (esaterako, hiriko kanpamenduetan), Gazte Pastoralaren lankidetzarekin (BAT) eta Hez-kide Eskolarekin.

## 4. Gazteak

Helburu hau du gazteak ebanjelizatzeak: “gaztea Jesu Kristorekin topo egin, elkartean ebanjelioa bizi eta gizartearen ebanjelizazio-subjektu izateko bermatzea” (*Gazte Pastoraltzako Elizbarrutiko Proiektua*, 2003). Pasa berria den Munduko Gazteen Topaketako esperientziak nahiz horren aurreko Elizbarrutiko Egunetakoak, eta horiez gain, parrokien, ikastetxeen eta gazte-mugimenduen eguneroko pastoral jarduerak bultzatzen gaituzte, indarberriturik, beti hain labaina baina ederra den ebanjelizazioarekin jarraitzera.

Elizarekin batera esaten diegu gazteei: “Kristoren maitasunean, fedean erroturik, irauten baduzue, oztopo eta sufrimenduen erdian aurkituko duzue pozteko eta alaitzeko arrazoa. Fedea ez dago zuen gorengo idealen aurka, alderantziz, handietsi eta ondu egiten ditu. Gazte maiteok, ez ezazue etsi Egia eta Maitasuna baino gutxiagorekin, ez ezazue etsi Kristo baino gutxiagorekin” (Benedikto XVI.a, Munduko Gazteen Topaketa, 2011).

Hauek dira gure helburuak:

1. Gazte Pastoraliza Kristau Iniziazioaren Prozesuan sartzea.
2. Gazte Pastoraltzako etapa desberdinak zaintzea eta gazteei heldutasunerantz urrats erabakigarriak ematen laguntzea.
3. Gazte Pastoraliza izan dadila bokazioaren bereizketa egiten laguntzeko leku eta garai eraginkor bat.
4. Astialdiko Taldeen Elizbarrutiko Federaziotik (“Bizi Alai Taldeak”) astialdiko taldeak sendotzea eta laguntzea.
5. Gazte Pastoralizaren alorrean, parrokien, artziprestaldean eta Pastoral Barrutien beharretara erne egotea, haiekin batera irtenbide egokiak bilatzeko.
6. Pastoral Barrutiek edo artziprestaldeek eskain dezatela Gazte Pastoraltzako zerbitzu antolatu eta bateratu bat, parrokia mailan halakorik posible ez den tokietan.

7. Musikak, zineak eta beste arteek eskaintzen dituzten aukerak Gazte Pastoraltzarako baliatzea.
8. Elizako gazte mugimenduen artean elkarren ezagutza eta hurbilpena bultzatzea.

## 5. Helduak

Hautzaroan eta gaztaroan kristau-heziketa jaso zuten pertsona askok bertan behera utzi duten erlijio-praktika eta, zenbaitetan, baita Elizaren partaide direneko kontzientzia bera ere. Lehen kristauak izanak baina orain ez diren heldu askoren ondoan gero eta gehiago dira Jesusi buruz ezer entzun ez duten gizon-emakumeak. Gure artean, “kezkgarria da nola galdu den sakratutasunaren zentzua, eztabaidaezinak ziruditen oinarriak zalantzan jarri arte, Jainko kreatoraile eta goi-arduratsuan sinestea adibidez, edota Jesu Kristo salbatazaile bakarraren agerkundea, gizakiaren funtsezko esperientzien ulertze bera, jaiotza, hiltzea, familia batean bizitzea bezala, eta lege moral natural baten erreferentzia” (Benedikto XVI.a, *Ubi-cumque et semper* gutun apostolikoa, Ebanjelizazio Berriaren Sustapenerako Kontseilu Pontifikalaren eraketarako idatzia).

Hauek dira gure helburuak:

1. Heldu bakoitzaren beharrak ezagutzea: haren itxaropenak eta beldurrak.
2. Helduari Jesus pertsonaren aurkikuntza probokatzea.
3. Elizara itzuli nahi dutenei laguntzea.
4. Helduen Idazkaritza berrantolatzea, Ebanjelizazio Berriaren Sustapenerako Kontseilu Pontifikalaren urratsak gerturik jarraituz.

## 6. Kultura

Kulturarekin elkarrizketatzea ez da zailtasunik gabeko zeregina, baina “zailtasun hauek ez doaz nahitaez fede-bizitzaren kaltetan; are gehiago, zolitu egin dezakete gogoia fedea arduratsuago eta sakonkiago ulertzeko” (*Gaudium et Spes*, 62). Elkarrizketa hori bultzatzen du Elizak: “Fededunak bizi bitez beren garaiko gizakiekin estu-estu loturik eta saia bitez kulturaren bidez adierazten den haien pentsaera eta sentiera ongi ulertzen. Uztar bitzate zientzia eta teoria berrien eta oraintsuko asmakizunen ezagutzak kristau-ohiturekin eta kristau-doktrinaren irakaskuntzarekin, kultura erlijioso eta espirituaren zintzotasuna haiengan bateratsu joan daitezen zientzien ezagutza eta teknikak egunero egiten dituen aurrerapeneekin, eta, horrela, beraiek gauza guztiak kristau-zentzu beteaz aztertzeke eta interpretatzeko gai izan daitezen” (*Gaudium et Spes*, 62).

Datorren bosturteko honetarako helburu hauek jarri ditugu:

1. Ebanjelizatzaileen prestakuntza intelektualak duen garrantzia azpimarratzea.
2. Hainbat giza zientzian adituak diren kristauen arteko topaketak sustatzea.
3. Unibertsitate Pastoralta berriro formulatzea.
4. Elizbarrutiko Museo Berria proiektatzea, eraikitzea, irekitzea eta abian jartzea.
5. Zinera, musikara eta antzeko kultur alorretara gure presentzia eramatea.
6. Musikaren edo artearen bidez ebanjelizatzeke, bereziki kristaua izango den esparru bat proposatzea.
7. Ebanjelizazioa helburu harturik, Internet eta teknologia berriak erabiltzen jarraitzea.



# 2011-2012 IKASTURTERAKO HELBURU ETA BALIABIDEAK: OTOITZA

## 1. LITURGIA ETA SAKRAMENTUAK

*Lehen helburua: Eukaristiaren ospakizunak zaintzea*

### **Baliabideak:**

1. Elizbarrutiko festaburuak, jaiak eta oroitzapenak bilduko dituen Meza-liburu bat prestatzea.
2. Meza-liburu berria eta sakramentu-errituak euskaraz argitaratzea.
3. Eukaristiaren Meza-liburu erromatarraren arabera eta Elizbarrutiko Meza-libururen subsidioa ospatzea.
4. Liturgi musikaren erabilera suspertzea, abesbatzen musika eta batzarraren parte-hartzea sustatuz.

*Bigarren helburua: Bataioko Sakramentua familiekin batera prestatzea eta horrek elkarreentzat duen garrantzia azpimarratzea*

### **Baliabideak:**

1. Gurasoei eta aita-amabixiei parroketan edo pastoral barrutietan prestaketarako bilerak eskaintzea, haurtzaro-aurreko planteamendu jarraiki batera sarbidea irekiz.
2. Sakramentua eskatzen dutenen pastoral beharretara egokitzen saiatzea.

*Hirugarren helburua: helduen Bataioko Sakramentuaren pres-  
taketan elkarrekin aurrera egitea*

**Baliabideak:**

1. Kristaugaiak unerik eta modurik egokienean aurkeztuko dira beren parrokia-elkarteetan (esaterako, Garizuman, igandeko Eukaristiaren ospakizun batean).
2. Gotzainak bisitatuko ditu kristaugaiak dituzten parrokia-elkarteak, haiek elkartean izanez Jainkoak egin digun oparia azpimarratu, eta elkarte osoarekin batera Bataioko Sakramentua prestatzera.
3. Ahal izanez gero, kristaugaien Bataioa Pazko Gaubeilarekin batera ospatuko da.

*Laugarren helburua: bataiatu berriek Elizarekin batera Adiskidetzeko Sakramentuan parte har dezaten ahalbidetzea.*

**Baliabideak:**

1. Jainkoaren erruki mugagabea hitzez eta egitez aldarrikatzea: ospakizunetan, predikuetan eta bileretan, denei gertutasuna eta abegikortasuna agertuz.
2. Elkarte Penitentziazko Ospakizunetan bekatuen aitortza egiteko erraztasuna ematea, aitorle-kopurua handituz edo aitortzako denbora luzatuz (ospakizunean bertan edo elkarteko ospakizunaren ondorengo egunetan zehar).
3. Gogora dezagun Ospakizunaren hirugarren aukera egoera berezietarako izango dela, hau da, gure Elizbarrutiko pastoral bizitzako ibilbide arruntari ez dagozkion egoeretarako.
4. Parrokietako eta santutegietako aitorleketan eta adiskidetzeko-kaperetan, nahiz Katedralean apaizen presentzia antolatzea eta horren berri ematea.

*Bosgarren helburua: kontzientzia hartzea benetako pastoral aukerak direla Sakramentuak praktikatzetik aldentutako pertsonen parte hartzen duten ospakizunak*

**Baliabideak:**

1. Abegikorrak eta ebanjelizatzaileak izatea sakramentu bat eskatzen duten pertsonekin.
2. Sakramentuen ospakizuna gogotik prestatzea eta haietan parte hartzera doazenei beharko dituzten baliabideak eskaintzea, egoki presta daitezten.
3. Hiletak zaindu behar dira batez ere, Kerigma aldarrikatzeaz gain, kristau-itxaropena proposatzeko ego-kiera aparta dirrelako.

*Seigarren helburua: erne egotea sakramentuak ekimen sozial soilera murrizteko arriskurekin, haien hutsaltzea saihesteko*

**Baliabideak:**

1. Sakramentuak ospatzeko harrera egin zaien pertsonekin pedagogikoak izatea: hartarako prestatu diren bileretan partaide izan daitezten.
2. Lehenengo Jaunartzeko Ospakizunetan, azpimarratzea Eukaristiaren Sakramentuak behartsuenekiko karitate ebanjelikoan aritzearekin duen lotura.

## 2. JAINKOAREN HITZA

*Lehen helburua: Liturgian Jainkoaren Hitzak duen lekua zaintzea*

### **Baliabideak:**

1. Eukaristiaren osakizunetan Jainkoaren Hitza osoki aldarrikatzea.
2. Jainkoaren Hitza aldarrikatzeko irakurle egokiak aukeratzea eta haien prestakuntza zaintzea.
3. Adiskidetzeko Sakramentuaren Ospakizunean Jainkoaren Hitzak duen lekua errespetatzea.

*Bigarren helburua: Jainkoaren Hitzaren irakurketa bakarkakoa nahiz elkartekoa sustatzea*

### **Baliabideak:**

1. Haur, gazte eta helduei Bibliarako sarbidea erraztea.
2. Hitzaren Irakurketa Sinestunean diharduten taldeak sendotzea eta metodoa ezagutzen ez duten komunitateetan haren proposamena egitea.
3. Idazteunaren ulermenari buruzko hitzaldiak ematea Elizan, *Dei Verbum* dogma-konstituzioaren eta sinodo osteko *Verbum Domini* Aholku Apostolikoaren azterketan sakontzeko.
4. Aste bibliko bat antolatzea.

### 3. KONTENPLAZIOZKO OTOITZA

*Lehen helburua: kontenplazioko karismaren ezagutza sustatzea Elizbarrutian*

**Baliabideak:**

1. Elizbarruti mailan, monasterio eta komentuetan egingo diren jarduerak antolatzea, hala nahi duten komunitate kontenplatiboekin.
2. Familien eta gazteen topaketa egunak antolatzea, egoki ditzoten komunitate kontenplatiboekin.

*Bigarren helburua: kontenplaziozko eta gurtzazko otoitza bultzatzea Elizbarrutian*

**Baliabideak:**

1. Etengabeko gurtza-lekuak finkatzea Donostian.
2. Eukaristiaren gurtzarako ordutegia ezagutaraztea Elizbarrutiko parrokia, komentu eta monasterioetan.
3. Elizetan irekiak egongo diren ordutegi-tartea luzatzea.

*Hirugarren helburua: Familiako otoitza suspertzea*

**Baliabideak:**

1. Familian otoitz egiteko orain arteko materiala banatzea eta material berriak sortzea.
2. Otoitz-esperientzien berri ematea familien bileretan.

#### 4. GOGO-JARDUNAK ETA BAKARRALDI ESPIRITUALAK

*Lehen helburua: Gogo-jardunen praktika azpimarratzea, Elizbarrutiak apaizei, erlijiosoei eta laikoei egiten dien eskaintza gisa*

##### **Baliabideak:**

1. Gogo-jardunen txandak eskaintzea apaizentzat.
2. Gogo-jardunen txandak eskaintzea laikoentzat.
3. Lehendik apaiz, erlijioso eta laikoentzat antolatzen diren beste gogo-jardunen txandez informatzea.
4. Elizbarruti eta eskualdekako bakarraldien deialdia egitea.

*Bigarren helburua: senidearen harrera eta entzute espirituala sustatzea*

##### **Baliabideak:**

1. Entzuteko lekuak eta ordutegiak finkatu eta hirietan nahiz beharrezkotzat jotzen diren herrietan eskaintzea.
2. Itxaropenaren telefonoaren zerbitzua sustatu eta berriro ezagutaraztea.

*Hirugarren helburua: gidaritza eta laguntza espirituala bultzatzea*

##### **Baliabideak:**

1. Apaiz, erlijioso eta laikoentzat lanerako lantegiak eskaintzea, laguntzaileek eta lagunduek elkarren esperientziak partekatzeko.
2. Sendotzako taldeetan –prestaketako lehen eta azken urteko ikastaroetan bereziki– laguntzailearen eta zuzendari espiritualaren irudia aurkeztea, haien eginkizunaren berri emanaz.